

# TOPA EGIN EUSKAL SAGARDOAREKIN

2022ko uztan bildutako sagarraren bitartez, Euskal Sagardoa jatorri izeneko 1.200.000 litro inguru sagardo ekoitzi dira.

**E**uskal Sagardoa jatorri izeneko ordezkariak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardogileen eta sagargileen elkarteetako ordezkariak aurtengo sagardotegi garaia nontik norakoak azaldu dituzte urtarrilaren 10ean, Donostiako Tabakaleran. «Sagardo sektoreak elkarrekin egindako bidea eta lana izan da gaur aurkeztu duguna, inflazio eta igoeren gainetik ilusioa eta pasioa elkartuta», nabarmendu dute.

2022ko uztako sagarraren bidez, Euskal Sagardoa jatorri izenarekin ekoitzi den sagardo litro kopurua 1.200.000 ingurukoa izan da. Azken urteetako bideari jarraituta, Euskal Sagardoa sor-markako sagardoak izango dira merkatuan: kapsula gorri eta urre-kolorekoak bate-tik, baina sagar mota jakinez eginak, sagasti bakarreko sagarrez eginak, egurrean onduak eta beste zenbait motatakoak ere bai. Aukera geroz eta zabalagoa aurkitu ahal izango du kontsumitzaileak.

## KALITATEAREN BERMEA

Euskal Sagardoa sor-markako sagardoa egiten duten sagardotegiak 48 dira: Arabako bi, Bizkaiko lau eta Gipuzkoako 42. Euskal Sagardorako sagarra egiten duten sagargileak 250 dira, eta guztira ia 500 hektarea erabiltzen dira horretarako. 2022an, bi milioi kilo sagar bildu dira Euskal Sagardoa sor-markako sagardoa ekoizteko. Hemengo sagarrez erabat egina



Euskal Sagardoa jatorri izeneko ordezkariak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardogileen eta sagargileen elkarteetako ordezkariak, aurtengo sagardotegi garaia aurkezpenean. ANDONI CANELLADA / FORU

eta kalitatea ziurtatua duena da Euskal Sagardoa. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagarraren eta sagardoaren sektoreko ordezkariak, eta hiru lurraldeetako foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Euskal Sagardoa marka aurkeztu zuten 2017an, erabat hemengo sagarrez egindako sagardoa bultzatzeko

eta kalitate bermea egiaztzeko. Horretarako, Hazi fundazioak eta Fraisoro laborategiak ikuskatzen dute prozesu guztia.

Euskal Sagardoa marka duten botilak saltokietan aurki daitezke, eta taberna eta jatetxe ugarietan ere zerbitzatzen dute.

Ekainaren 22an, XXI. Sagardo lehiaketa: Gipuzkoako Foru Al-

dundia Sariak txapelketako sari banaketa ekitaldian, Unai Agirre Euskal Sagardoa sor-markako koordinatzaileak aurrera begira dituzten erronken berri jakinarazi zuen. «Datozen hamar urteetan %100 Euskal Sagardoa izatea da helburua, eta, bide horretan, sagasti gehiago landatzen jarraituko dugu. Bestetik, datozen hi-

ruzpalau urteetan gure tabernetan eta jatetxeetan Euskal Sagardoren presentzia areagotzea izango da beste erronka nagusi bat. Tabernek eta jatetxeek sagardo kartak izatea da gure helburua, jendeak Euskal Sagardo desberdinak aukeran izan ditzan».

Agirrek azpimarratu zuen jatorri izena urte askotako lanaren

# Zelaia

SAGARDO NATURALA SIDRA NATURAL

kalitate guzti-guztia zuentzako prest



AFARIAK  
asteartetik  
larunbatera

BAZKARIAK  
ostiral eta  
larunbatetan

943 55 58 51 [www.zelaia.eu](http://www.zelaia.eu)



Topa Sagardo Eguna Bilbon. EUSKAL SAGARDOA

emaitza eta etorkizuneko apus-tua dela, sagarraren eta sagardoaren sektoreak eta erakunde publikoek elkarlanean egina.

Ekitaldi horretan beñtan, Fraisoro Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Kalitateko eta Berrikuntzako Laborategia zoriondu zuten, Fraisoroko dastatze panelak 1.000 dastatze saio egin baitzituzten iaz. 2013az geroztik sagardoaren sektorearen bidelagun

izan da Fraisoro, eta sagardoaren kalitatean eragin nabarmena izan du.

### SAGARDO EGUNA BILBON

Urriaren 1ean eta 2an Euskal Sagardoa sor-markak Topa Sagardo Eguna antolatu zuen Bilbon. Areatzan 14 postu egon ziren Euskal Sagardoa jatorri izeneko sagardoak zerbitzatzen, eta dastatze gune

bat ere izan zen, Mikel Garaizabal enologoak gidatua. Horrez gain, Eusko Label produktuak erre eta zerbitzatzeko gune bat ipini zuten: Basatxerri, Euskal Okela eta Euskal Bildotsa, Eusko Label barazkiak, Idiazabalgo gazta eta Eusko Label esnez egindako gaztak... Halaber, bi egunetan musika emanaldiak eta bertso saioak izan ziren Areatzan.

Irailaren 10ean, berriz, Topa

Sagardo Eguna antolatu zen Ordizian (Gipuzkoa). Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen hamalau sagardotegik Euskal Sagardoa sor-markako sagardoak eraman zituzten, eta herritarrek dastatu ahal izan zituzten. Eusko Label-dun hainbat jakirekin batera.

Donostiako 35. Sagardo Egunean ere, irailaren 3an, jende ugari topa egin zuen Euskal Sagardoa sor-markako sagardoekin. Gi-

puzkoako Sagardogileen Elkarte-ko 38 sagardotegik guztira 8.000 botila inguru eraman zituzten Donostiako Konstituzio plazara, eta herritarrek gustura edan zuten sagardoa trikiti eta bertso dolnu alaietz lagunduta.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: [www.euskalsagardoa.eus](http://www.euskalsagardoa.eus)



euskal sagardoa  
Eusko Label

hazi

EUROPEAN UNION  
Geographical Indication